

Atlas Etnográfico de Vasconia
Euskalerriko Atlas Etnografikoa
Atlas Ethnographique du Pays Basque
LA ALIMENTACION DOMESTICA
EN VASCONIA

José Miguel de Barandiarán, Ander Manterola et alii

1990. Bilbao: Eusko Jaurlaritza, Etniker Euskalerria

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 2 (1992), p. 501-506
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Metodologizko Printzipioa:

P. But is a universally received maxim,
that *every thing which exists is particular*.

P. Or, c'est une maxime universellement
reçue que tout ce qui existe est particulier.

BERKELEY 1944 "Three dialogues
between Hylas and Philonous,
in opposition to sceptics and
atheists" (5-215) 54-54
Oeuvres choisies de Berkeley
Tome II. Paris:
Aubier Editions Montaigne.

1921eko Helburuarekin 1990an

Joxemiel BARANDIARAN antropologoak (1889-1991) bere ikerkuntzako helburu nagusia Euskal Herria antropologikoki kultura bat zela agertzea izan zuen.

Garai hartako europarrek Europan antropologia egiteari nork bere hizkuntzan deitzen zion. Ingelestarren izenak, folklorea hain zuzen, izen guztiei gaine hartu zion.

Europear folklorelari haien artean nik bi talde bereizten zirela ikusten dut, denek zedukarlarik zeintzizko helburu berbera, europear kulturen zerrenda berreraikitzea alegia. Baina batzuek estatudun kulturak bakarrik lehen mailakotzat ematen zituzten bitartean bestatzuek kultura guztiak, iadanik estatudun izan ala ez, maila berekotzat hartzen zituzten. Azkenengo hauen artean euskaldunak eta alemaniarrek aurkitzen ziren, esatebaterako. Frantsesak eta ingelestarrak lehenengo taldeko kideen artean zeuden. Hegoko euskal antropologo maixuek (Telesforo ARANZADI, Joxemiel BARANDIARAN haundienen artean) germanofilia heuren oso itsasia zaramaten, eta, alderantziz, alemaniar antropologo maixuek (Ritz KRÜGER, W. SCHMIDT haundienean artean) euskalfilia heuren oso itsasia zaramaten.

Joxemiel BARANDIARANek euskal kultura ezestatuduna antropologikoki frogatzeko berebiziko folklorezko plangintza bat 1921ean sistemazitzatu zuen Gasteizen, bertako Apeizgaitegi Kontziliarrean irakasle bezala zegoelarik. Folklore ikerlanen argitaratzeko urte berean sortu zituen alde batetik lau orrialdeko eskuorri bat, *Eusko-Folklore*, eta bestetik aldizkari bat, *Anuario de Eusko-Folklore*. BARANDIARANen 1921eko idatzietan bere aipatu plangintzaren ezaugarriak nola agertu zituen gaur honelaxe berrirakur dezakegu:

NOTA PRELIMINAR

Las producciones espontáneas del espíritu vasco, en particular aquellas que se refieren a estados de cultura anteriores, restos inmateriales de un pasado cuya memoria ha llegado hasta nosotros en forma de leyendas, tradiciones, creencias, costumbres y prácticas religiosas y mágicas; las mutuas relaciones de estos elementos y su agrupación sistemática constituyen el objeto primario e inmediato del *folklore* vasco. Esto en cuanto a la parte descriptiva de la ciencia, la cual ha de preceder a las generalizaciones científicas y al estudio comparativo de los materiales.

Investigar y recoger tales datos es la primera labor que conviene realizar. Tal es el fin que persiguen estas hojas, contando para ello con la ayuda de Dios y la colaboración de todos los amantes del *folklore* vasco.

BARANDIARAN J. M. Enero de 1921
Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios N.º 1, 1.
Vitoria: Imp. Lib. Enc.
Montepío Diocesano.

NUESTRO EMPEÑO

Además nos hallamos profundamente convencidos de que una sistemática recopilación de hechos ha de proceder a las generalizaciones científicas y al estudio comparativo de los materiales. Dicho se está, pues, que en esta delicada labor, o mejor dicho, en este difícil sendero que nos ha de conducir a las profundidades del espíritu vasco y a las lejanías de su pasado, procuraremos sustraer nuestra mente a influencias no justificadas, a principios no probados, dando de mano a aquellos métodos y teorías cuyos resortes, si no inducen francamente a los abismos del error, tienden, cuando menos, a sacrificar en aras de sus prejuicios las realidades aún no investigadas, las verdades todas del porvenir. Tales son nuestra miras, tales los medios, con los que, ayudándonos Dios, esperamos dar cima a nuestro empeño.

BARANDIARAN J. M. 1973 (Orijinala 1921ekoa) "Nuestro empeño (Del Anuario "Eusko-Folklore 1921") 13-17", 17 in *Obras Completas*.
Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca

Josemiel BARANDIARANek 1921eko bere folklorezko plangintzan zabalkunde teorilariekin funtsean bat zetorren berdenboran euskal kulturak bere buruaren jaun ta jabe izaten jarraitzeko zedukan eskubidea bere garaiko europear kultura estatudunen aurrean defendatzeko bilakaera teorilariekin bat egiten zuen. Aro garaikidean euskal kulturari historiaren denboran oinarrituta lehen mailako kultura edo estatuduna izateko egindako ahalegin latzak ordurarte ustelak gertatu izan bazitzaizkion ere, prehistoriaren denboran oinarrituz agian bestelakorik gerta zitzaiokeela irmo pentsatzen zuela Joxemielek argi eta garbi adierazten digu bere "espíritu vasco" kontzeptuak.

1990an Euskal Herriko Etniker taldeek, Joxemiel BARANDIARANen eta beronen ikasle Ander MANTEROLAren (1934) zuzendaritzapean, 1921ko Joxemielen folklorezko plangintzaren 2. emaitza galantaren argitaratzeari hasera eman zioten *Atlas etnográfico de Vasconia. Euskalerriko atlas etnografikoa. Atlas ethnographique du Pays Basque. La alimentación doméstica*

en Vasconia liburua argitaratuz. 1. emaitza lehen aipatu Joxemielek sortu eta hil arteko guztian zuzendutako *Eusko-folklore* eskuorriak eta *Anuario de Eusko-folklore* argitalpenek osatu zuten. 2. emaitzako liburu hau bilduma luze baten lehenengo liburua dela bere egileek agindu dute. Joxemielek, ehun urtekin eta hil baino urte bat aurretik, egindako "Aitzin solasa" -n 1. emaitzaren haserarako proposatutako folklorezko plangintza berbera berproposatzen zuen:

AITZIN SOLASA

Gure herriak, aintzina-aintzinako ezaugarriak baditu ere, ez du ordea bere buruaren berri eman dezaken Atlas kulturala. Atlas honen bitartez Euskal Herriak bere buruaren berri eman eta honekin batera bisitariek edo ezagutu nahi dutenek gure bizimodu eta edestia ikasi eta inguruko beste herriengandik bereiztu eta hobeki ikertuko dute.

...

Aintzinako euskal bizierak jasotea derrigorrezkoa dugu, egungo bizimoduak hauek guztiz itxuraldatu eta desagerrerazi baino lehen. Horregatik ezinbestekoa deritzaiot euskal lurraldeetako eskualde ezberdinetan egindako monografiak argitaratzeari. Hori zela-ta, 1969.ean, eta lau urte lehenago European Nazioarteko Konferentziak ezarritakoari jarraituz, *Guía para una encuesta etnográfica* egin nuen: Berau dugu ETNIKER taldeek Euskal Herriko lau alderdietan erabili izan duten inkesta.

Hainbat urte igaro da 1921.ean eginkizun honi ekin genionetik, nahiz eta, gorago aipatu dudanez, beste izenburu bat eman eta ikerketabide zertxobait aldatu dugun.

BARANDIARAN J. M. 1990. "Aitzin solasa" (23-24) 23-24.

Atlas etnográfico de Vasconia.

Euskalerriko atlas etnografikoa.

Atlas ethnographique du Pays Basque.

La alimentación doméstica en Vasconia.

Bilbao: Eusko Jaurlaritza, Etniker Euskalerria.

1921 eta 1990an Barandiaran eta Manterola antropologoen proposatutako euskal folkloreaken metodologia nola praktikatu dute?

Lehenago erakutsi dut bi aldiatarako nola helburu berbera zedukan BARANDIARANek. Honek, eta baita bere ikasle MANTOROLAK, lekuan lekukotasunaren printzipioa metodologiaren oinarrian beti ipini izan dute.

Labur labur metodologia honen erabilpenean alde baikorrak eta alde ezkorak, nagusienetakoak izan diren batzu alegia, aipatu nahi dut, baikorretan aurrera egiten jarraitzeko eta ezkorretan oraintxe bertatik aldatzeko beren egileei eskatzearen. 1921eko edo 1990eko aldirik aipatzen ez dudanean horrek ager nahi du bien gainean idazten ari naizela.

1. Metodologiaren alde baikorrak

1.1. Lekuan lekukoa ikerlaria izatea.

1.2. Lekuko berriak lekukoek kontatu eta bizi bezala jasotzea.

- 1.3. Lekukoen bizitzako edo kulturako atal nagusien berriak jasotzea (Ikus aipatu etnografizko galdeketa-aren zortzi atal nagusiak gehi bederatzigarrengo bat).
- 1.4. Leku berean lekuko anitzekin etnografia osatzea.
- 1.5. Euskal lurralde zein nazioko herri desberdinetan ikertzea.
- 1.6. Aipatu etnografizko galdeketa-aren etnografari guztiak lurraldeka zein nazio mailan antolatzea.
- 1.7. Urtetan edo bizitza osoan etnografia egiten saiatzea.
- 1.8. Euskal Naziotik kanpoko, batipat Europako, beste naziotako ikertzailekin aldizka elkarri egindako lanen berri azaltzeko batzea.
- 1.9. 1921eko aldi-aren euskal eta atzerri-aren goi akademiarekin hertsiki harreman-atea.
- 1.10. 1921eko aldi-aren ikerlari bakoitz-aren monografiak oso osorik argitaratzea.

2. Metodologiaren alde ezkor-ak

- 2.1. Ikerlari-aren zientzizko hezkuntza akademi-koa zenbat eta 1921etik gure egunetara gehi-ago hurbildu orduan eta gutxi-ago behar adina lortzen ez saiatzea.
- 2.2. Ikerlari-aren etnografiari aldi berean etnologia eranste-ko asmorik ez edukitzea.
- 2.3. Berri-ak ikertutako nazio-aren hizkuntzan, hots euskaraz, nahitaez jasotzeko printzipiorik ez izatea, geroz eta gutxi-ago euskaraz jasotzeko praktika indartzen joanez.
- 2.4. Etnografizko monografiak ia beti erdara hutsez, frantzesez zein euskaraz, ematea.
- 2.5. 1990ko aldi-aren euskal goi akademiarekin loturari-ak ia batere ez izatea, nahiz atzerri-ko batzuki-kin lotura gehi-ago izan.
- 2.6. Atlas-aren gazteleraz pentsa eta idaztea, euskara *beste* erderekin batera ipiñiz, gaztelerazko idatzi nagusi-aren laburpenak ematerakoan bakarrik erabiltzeko, hain zuzen!

Etnikerren atlas kulturalaren lehen tomoaren gainean iritzi orokorra

Atlas honen lehen tomoa euskal antropologiaren historiaren historian egin denetatik zabalena eta aberatsena da. Euskal Herri edo Nazio osoa kontutan hartu du eta elikape-aren gaiaren inguruan sekulako lehen eskuko berri multzoa jaso du atlas honetako lehen tomoak. Puntu honi dagokionean, lehen tomoa oso ona da eta hemendik aurrera antropologian bezalaxe beste pertsona eta sozietate zientzietan nahitaez aipagarri izan beharko du, etxean zein atzerri-aren.

Atlasaren lehen tomoaren idazketako taldean hamaika lagunek parte hartu dute. Halere, idazle bakoitzak atlasaren tomo-ko zein zati idatzi duen ez da esaten. Egileak bere idatzia burutzerakoan jatorrizko monografiak moldatu ditu, eta moldaketan era ibilitako printzipiorik ez da azaltzen. 20. mendean antropologian bezala beste zientzia batzutan atlas ugari idatzi izan da, Europan eta hemendik kanpo ere. Egile bat baino gehiagok atlas bat egin duenean nahitaez esan behar da egile bakoitzak atlaseko zein zati burutu duen eta zeintzu kriteriok. Etnikerreko atlasaren urrungo tomatoko egileei berriz hutsegite hau ere ez egitea gomendatzen diet.

Gutxienez atlasaren egileen artean euskaraz dakitene-ko monografiak bezalaxe atlaserako idatziak euskaraz egin ditzatela aholkatzen diet, bestela arestian aipatu dudana "1921eko helburuarekin 1990an" erabat ustel gertatuko da. Antropologia egitea aztertutako edozein kulturara norberak bizitzea beti izan behar du, bestela aztertutako kultura norbera ari da disekatzeko.

Joxemartin Apalategi Begiristain